MOTZ-MOTZ **GREBA EGUNA METALGINTZAN** · GEHIGARRIA **JOSE ZUAZUBIZKARRI ELKARRIZKETA** · KIROLA **JOSE MARI ETXABE, 'ETXABE X', PILOTARI HANDIA HIL DA**

# BARREN
ASTEKARIA

ELGOIBARKO ASTEKARIA · 2001ko otsailaren 9a/VIII. urtea/350. zkia



# Morkaiko Mendizale Elkarteko direktiba berria lanerako prest

"MENDIAK EZ DIRA ALKARTZEN, BAIÑA GIZONAK BAI" (Esaera zaharra)

# PILAR IKASTETXEA
## Elgoibar




**MATRIKULATZEKO ORDUTEGIA:**

**EGUNERO 9etatik 19,00etara**

**ARGIBIDEAK:**

**943741331 telefonoan**

**E.MAIL: nsp42elg@planalfa.es**

2001-11-9



## Nahiago dut Tarifa turistikoa

Agian urntn samar geratzen zaizkigu Tarifa aldeko hondartzak baina berriak maiz iristen zaizkigu Andaluziako alde honetatik. Bi alde erakusten dizkigu Cadizeko herri honek.

Tarifa turistikoa: oporraldi eta aisialdirako lekua. Eguzkia, itsasoa, hondartzak, olatuak, surferrak.... Uda sasoia. Cadizeko bizilagunen berezko "grazia¯ eta surfista ile horien bizitzarekiko jarrera berezia. Txiringitoetan arrain frijitua eta mantzanila motako ardoa. Alaitasuna eta bizipoza nagusi.

Tarifako hondartzetako beste errealitatea: bat, bi. hiru eta lau. Honakoan, lau dira egunkariko argazkian azaltzen diren hitotzak. Beste sei gorpuak ere aurkitu dituzte dagoeneko. Gazteak dira guztiak, gazteegiak hobe esateko eta neguko gau ilun batean aurkitu dute heriotza. Tragedia. Etengabe gertatzen ari den ezbeharra. Itxaropenez beteta zeharkatzen dute Maroko eta Cadiz arteko itsasartea, miseria guztiak atzean utzi eta bizimodu hobe baten bila. Hamaika amarru izango dira artean. Eta bestela, galde diezaietela egunotan Bartzelonako elizatan dauden herrikideei. Zerk bultzatuko ote du ama gazte bat bere titiko umearekin untzi kaskar batetan sartu eta itsasoa zeharkatzera? Bere arrazoiak izango ditu ama honek baina horrelakoak entzun, ikusi eta irakurtzen ditudan guztietan hunkitu egiten naiz. Tamalez sentimendu honek ez du errealitatea aldatzen. Nahiago dut Tarifa turistikoa.

Olga Unzilla

Cf) o O CD



# Txoria

Behin batean hipotesien munduan.........

Egia esan, ...... nik txoria nuen maite. Bai, maite nuen txoria. Hegoak ebaki izan banizkion... orain neria izango zen. Zer esan duzu? Hegoak ebaki. Zertarako? Neria izateko. Bainan horrela ez zen gehiago txoria izango. Baina neria izango zen. Konturatzen al zara? Zertaz? Esaten ari zarenaz. (...... ) Txoria txori da bi hego dituelako. Hegan egiteko, ihes egiteko, libre izateko.... txori izateko. Eta zuk inoztu egin nahi dizkiozu. Zerbait esan nahian zabiltza, ez da hala? Bai. Nahastuta zabiltzala. Ni? Zu. Zuk ez duzu zuhaitzean ikusten den txoria maite; beraren hantz izugarria duen hego gabeko hegaztiren bat maite duzu. Ez jauna. Itxua ez naiz. Animalia danak ezagutzen ditut. Aditua naiz hegaztien munduan. Aditua, mundu osoko hegaztien munduan. Nik badakit zer diodan. Eta nik txoria maite dudala diot. Lastima. Zer'? Erruaz jabetuko zinelakoan nengoen. Gauzak ezin dituzu "zureak" era horretara bihurtu. Gauzak ezin dituzu modu horretara tratatu. Are gutxiago izaki bizidunak "zure" nahietara transformatu. Ez da bidezkoa. Zure burua bakarrik maite duzu. Azkeneko galdera bat egiterik hai? Esan, Gaur ezagutu gara. Nire laguna izatea pentsatu baduzu, "Zure" laguna izango naiz. "Zurea" naizenez, besoak moztuko dizkidazu edo eta nere osotasunean onartuko nauzu?

Eguzkiñe A.


MOtZak .................................................. 6

nEgOZiOak aLdatti diRela .................

gehigarria ...........................................

kiROlAk ........................................ 20

aGenda ............................................ 24

# Urruzunoren
## begi izkutua



Herrian igerilekuak egin zituztenetik toaja motxilan sartu eta Mintxerara joaten zen. Hantxe, bere bikini horia jantzita, kremaz estaltzen zituen izterrak, eta sabela, besoak eta aurpegia. Eta eguzkitako betaurrekoak jarrita, begira pasatzen zuen denbora. Uraren freskuran beroaren ajea izoztu nahi zutenei begira. Begiekin sedukzio tiroak botatzen zituztenei begira. Eguzkiaren babesean azala belzten hasia zitzaienei begira. Eta, koadrilan eserita, kuxkuxeoan, oinetako azkazalak laranjaz pintatuz arratsaldea pasatzen zuten neskatikoei begira.

Izerdiak olioa zurrupatu ezin zuela konturatzen zenean, karmina ateratzen zuen poltsatik. Eta ispilu txikia. Ezpainak gorri-bizitzen zituen eta gomarekin lotuta zuen ilea askatzen zuen. Gero, igerilekuaren ertzera joan eta hantxe esertzen zen. Gustuko zuenari begira. Hark ere ahoa desioz gorri-bizitua zuela ikusi arte. Eta orduan, jauzi egiten zuen, zast! Ur-azpian alderik alde igeri egiten zuen. Ertzera iristean, burua atera eta ezpainetako karmina ezabaturik agertzen zen.

Jasone Osoro
**URRUZUNO LITERATUR TALDEA**

## LANORDUEN MURRIZKETA: ENPLEGU GEHIAGO ETA KALITATEZKOA

Ekonomiaren hazkunde itzela daukagun aldi honetan, negoziaketa kolektiboa, kalitatezko enplegua eta aberastasunaren banaketa bidezkoago batetan oinarritzen diren gure proposamenak lortzen joateko, eskura daukagun ezinbesteko tresna da. Helburuak ezagunak ditugu: 35 orduko lanaldia lortze aldera ordu murrizketa egokiak; soldaten erosteko ahalmenaren hobekuntza; kolokako enpleguaren aurkako borroka, aldi baterako kontratuak eta azpikontratuak deuseztuz; Lan Harreman Kontseiluko akordioen aplikazioa (ordezkatze kontratua, aparteko orduak, ABLEak, e.a.); eta genero zein adinagatik bereizkeria ezabatzea.

Patronalak aldiz, ez du behar bezalako enplegua sortzeko inbertsiorik egin nahi. Horretarako bitarteko ugari ditu baldintzak ezartzeko: langabezia tasa handia, kolokako enpleguaren eskandaluzko maila, legeria bera.., Bere estrategia aurreko urteetako negoziaketetako ildoa jarraitzea da, lanaldi murrizketa negoziatzeari muzin eginez, eta negoziaketa mahaietan itxikeria erakutsiz.

Testuinguru honetan, Gipuzkoako Metaleko Konbenioaren negoziaketan buru belarri gaude, Sektore honek Deba eskualdean duen pisuagatik, hitzarmen hau erreferente garrantzitsua da.

Orain arte Negoziaketa Mahaiaren bost bilera ospatu dira, azkena otsailaren 6an. ADEGIk tabla soldadetan %4'4aren igoera eskaintzen du. Lanorduen murrizketan 24 ordukoa izango da. Beste gaietan ez du sartu nahi.

Jarrera honen aurrean, Negoziaketa Mahaiaren gehiengoak (ELA eta LAB) mobilizazioak deitu ditu, eta horien artean, otsailaren 8 eta 9rako, greba eguna. Deialdi honekin ESK-k bat egin du. Hitzetik ekintzetara jo behar dugu. Mugi gaitezen, guztiok batera.

ELA, LAB, ESK sindikatuen izenean
P.Z. NAN 15998660

ASTEKARIA
BatRRen

Naf arroa enparantza, 2
20870 ELGOIFIAR
.943 74 41 12
Publizitatea:
943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-maila:
barrendlopagunem.com
Helbide informatikoa:
wortmihardun.00m/barren
AnorrArtArzruLtA
Elgolbarit0 Izarra

E6GO1111110 I2ARRA

LAGUNTZAILIA Eiglibark0 Udala ZuZENDARIA Ell Aizpuru KAZETARIAX Irali Agirmazaldegi, Asier Ortma PUBLIZITATEA Andoilz Agirregomezkorta MAxerAriruLea Bea Ansola ANIIIISTRAZIOA Amaia Rodrigez GEFIENTZIA Rata Alvarez, M. Angeles Ortuoste. KOLABOHATZAILEAK Amaia Lariz, Unai Argarate. Eguzkirte Aranhern, Lorea Perez de Alhersz, Jokin Marlinez, Altos Zabalela. Leire Urkidi, Olga Unzilla, Montse Arregi, Juanito Gorostiza, Iker Maguregi, Jon Gurruixaga. Jon Eugi, Ainhoa Andonegi, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T., AZALEKO EBALDIA Gotzon Gareteren liburutrk NPrilmATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4 000 ale IEcE CORDAiLLIA S5·1 038/92 ISSII 1139.1855

*Elgoiharko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sarlak* era *Foru Aldundiak diruz,* lapardurako *aldizkaria.*

kutxa gizarte-ekintza obra social

1DANOBAT

GOITI
GRUPO DANOBAT

2001-11-9

V11110111



• Emakume bat etorri zaigu erredakziora eta Santa Klara parean, errekara jaisteko dauden eskailerak garbitu dituztenak txalotu nahi izan ditu: "Enrkara zerbait erortz lero, ez geneukan ezer egiterik. Jende askok eskailerak zeudenik ere ez zekien. Orain behintzat, askoz hobeto daude. benetan eskertzekoa da leku hau garbitu izana".



• Elgoibarko Izarrako Santa Ageda taldeak eskerrak eman nahi dizkie herriko baserritarrei. "Santa Ageda bezperan 81 baserri koplatu genituen eta benetan eskertzekoa izan zen baserritarrek egin ziguten harrera. Eskertzekoa baita ere, San Migeleko soziedadekoek egin zutena. Aurten ere bazkari eta afari ederra prestatu ziguten! Amaitzeko, 'Nava' inprentari ere gure esker ona azaldu nahi diogu furgoneta laga zigulako".

# Elgoibartarrak
## MUNDUAN ZEHAR

**NEW YORK** eta
**DOMINIKAR ERRER**



**Joseba Gorosabel** elgoibartarrak 15 eguneko ezkonbidaia egin zuen azaroan ezkondu ondoren. Bi zati izan zituen bidaiak. Lehen astean Toronto (Kanada) eta Niagarako ur-jauziak eta New York hiria bisitatu zituen eta bigarren astean, berriz, Dominikar Errepublikan izan zen. Bidaiaren lehen zatian gelditu ere ez ziren egin, eta -6 gradutako tenperaturak jasan behar izan zituzten. Dominikar Errepublikan, aldiz, 25 graduk ematen duten epeltasuna aprobetxatuz, lasaiago hartu zuten egonaldia. Dena den, New Yorken pasa zituzten 5 egunak izan zirela onenak aipatu digu, "batez ere kalian ikusten dan kultura nahasketa ikusgarrixa gustau jatan. Kontraste asko ditxun hirixa da. Auzo bakoitzak bere izakera berezixa daka; Bronx, Harlem, Chinatown...kilometro gutxixan horrenbeste komunidade ezberdinetako jendia topatzia pasada bat da. Niagarako ur-jauzixek ez zian grazia handirik ein, baina Toronto gehixao gustau jatan. Oso hiri modernua da. Atentziva deitxu zigun kaliak hutsik topatziak. Neguko hotzetik babesteko lur azpixan eraiki daben hiri batian bizi dia. Dominikar Errepublikan gauza politxak ikusi genduzen, baina behin ikusitxa nahikua dala uste dot. Gainera pobrezia handixa dao".


vf AJES
**311.31:10 EXPeESS**
BIDAIA AGENTZIAK BABESTUTAKO ATALA
Foruen enparantza, 3 • Tel: 943 74 39 12




# Sindikatu antolatzaileen arabera metalaren arloan otsailaren 2an egindako grebak 1090eko jarraipena izan du enpresa txikietan

## CCOO eta UGT nagusi diren lantegietan ohi bezala lan egin zen

Joan den otsailaren 2rako ELA, LAB eta ESK sindikatuek greba deitu zuten metalaren alorrean. Greba, beste eskaera batzuen artean, 40 orduko lanastea murriztu eta 35 ordukoa lortzeko eta soldataren igoera aldarrikatzeko deitu zuten. ELAko eskualdeko bulegotik adierazi digutenez, metal arloko enpresa txiki gehienek bat egin zuten grebarekin, eta ELA eta LABek gehiengoa duten enpresetan erantzun zabala izan zuen grebak. Bestalde, kooperatibek beraien dinamika dutenez, ez zuten grebarik egin eta CCOO eta UGT sindikatuak nagusi diren enpresetan ere eragina oso txikia izan zen.

GREBAREN ERAGINA 11A1NBAT RIPRESATAN

"ELAko eskualdeko arorlowdonek emandako daluak.

| % loo | % 75etik gora | 21111 | 25etik behera |
|---|---|---|---|
| Atslakin<br>Claudio<br>San Martin<br>Egondo<br>Etuit<br>Zubacor | Gemtnis | Etxe- Tar<br>Fatronik<br>Lagun<br>Etxede | Alhorta<br>Doimak<br>Traterb<br>Rodisa<br>kontliaa |

*Taulan ikus dc nekeen bezala, grebaren eragina ez zen hain nabarmena izan lantegi handietan*

### Atzo eta gaur greba

Joan den ostiraleko greba deialdiari jarraituz, atzo osteguna eta gaur ostirala ere metalgintzan greba zegoen iragarrita. Erredakzioa itxi genuen unean oraindik grebak izandako eragina ezin izan genuen jakin, baina deialdia egin zuten sindikatuen esanetan, joan den ostiralekoez gain, beste hainbat enpresa gehituko direnaren ustea zeukaten, besteak beste: Rodisa, Lagun...

# Herri barruko trafiko arazoekin amaitzeko arauak zehaztu ditu Udalak

## Autoak gaizki aparkatuz gero, 3.000 eta 5.000 pezeta arteko isunak ordaindu beharko dira

Elgoibarko kaleetan trafikoak sortzen dituen arazoak kontutan hartuta, Udalak hainbat irizpide zehaztu ditu trafikoari dagozkion ordenantzak behar bezala betetzeko. Autoak modu ezegokian aparkatzen dira Elgoibarko kaleetan eta gaizki aparkatutako autoak gruarekin eramateaz gain, 3.000 eta 5.000 pezeta arteko isuna ordaindu beharko dute gidariek. Orain artean grua Eibartik ekartzen bazuten ere, aurrerago Elgoibarren grua zerbitzua ipintzeko ideia aztertzen ari da Udala. Beraz, autogidariak jakinaren gainean egoteko,

- *Garajeen aurrean aparkatzea, debekua seinalatuta dagoenean.*

*erk Karga eta deskargarako erabiltzen diren lekuetan bainzenik ez duten autoek aparkatzea.*

*Wir Zebrabideen gainean autoa lagatzea.*

- *Elbarrituentzako gordetako aparkalekuetan autoa uztea.*

'AT *Autoen zirkulazioa eragotziz aparkatzea.*

- *Zerbitzu publikoa oztopatzen autoa lagatzea.*



*.lurrerago, grua zerbitzua Elgoibarren bertan ipintzeko ideia aztertzen ari da L'dala.*

## Ia 100 pertsona atera ziren Santa Agedaren omenez kopla kantari zapatuan eta domekan



Joan den asteburuan Santa Agedaren omenez hainbat koru aritu ziren koplari. Etxeginaren koruetan guztira 25 lagun inguruk hartu zuten parte zapatuan. Herriko kaleetan ibili ondoren `Baltasar' elkartean egin zuten bazkaria.



Elgoibarko Izarrakoak baserriz baserri aritu ziren kantuan dornekan, eta bi taldetan banatuta, 30 lagunek 80 baserri inguru koplatu zituzten. Baserritarren artean estimazio handia izan zuten koplek, eta bitxikeria moduan amerikarrak eta argentinarrak entzule izan zituztela ere aipatu digute. Bestalde, GAZ-T taldeko 20 lagun inguruk San Roke bailarako baserrietara egin zuten bisita goiz partean eta ondoren gazteek Toletxen bazkaldu zuten.

## AEHren zozketak badu sariduna

Urtarrilaren 26ko ONCEko zozketaren zenbaki saritua 74.982a izan zen. Txartela Donostian saldu zen. Beraz, zozketak badu sariduna, Elgoibarko AEK euskaltegiak eskerrak eman nahi dizkie euskaltegiari laguntza emanez txartelak erosi zein saldu dituzten guztiei.

## Kontu korronteak zabaldu dira Indiara dirua bidaltzeko

Indiako hondamendia dela-eta diruz lagundu nahi dutenentzat aurrezki kutxa eta banketxeetan hainbat kontu korronte zabaldu dituzte:

BBVA01825709420200020003
Banco Guipuzcoano 00420001910110185706
BCH 0049000153211002222/5
Banco Santander 00495115362216001941
Banco Vasconia 00750001890600222267
Kutxa 21010381010000062695
Euskadiko Kutxa 330350060440600099000
La Caixa 21002208310200200799

---

EfilLuG,THR19 REAA **bazkideen** urteko **BATZAR OROKORRA**

**NOIZ**
**- Otsailak 19, astelehena**

**ORDUA**
**- Arratsaldeko 19:00etan**

**NON**
**Kultur Etxeko hitzaldi gelan**

### Gaien ordena

— 1.- Lehendakariaren agurra
— 2.- 2000ko memoria
— 3.- 2001eko asmo eta aurrekontuak
— 4.- Zuzendaritza berriaren aurkezpena
— 5.- Galdera-erantzunak

2001-11-9

**Sindikatuek greha egunak antolatu dituzte metalaren arloan 35 orduko lan astearen alde**

# LORTUKO AL DUTE 35 ORDUKO LAN ASTEA?



### JAVIER CEREZO

38 urte, langilea

Ez dut hain argi ikusten. Ni 35 orduen aldekoa naiz, baina ez zait zuzena iruditzen greba deitu duten sindikatutetako ordezkariek ordu estrak sartzea.

### LOURDES FAJARDO

33 urte, ileapaintzailea

Ez dut uste Gobernuak aukera hori emango duenik. Ni langileen alde egon naiz beti, beraz, 35 orduen alde.





### PEDRO GARATE

45 urte, kamioilaria

Lortuko balitzake hobe, baina zaila izango da. Ni autonotnua naiz, baina egunen baten tokau leike aldatzia. eta orduan ona izango litzake 35 ordu lan eitxia.

### PEDRO JOSE OTEIZA

48 urte, langilea

Bai, gauzak doazen moduan lortuko da, gainera horren alde nago. Nik beti esan dut 35 ordu beharrean 30 balira eta jende gehiagok lan egingo balu, hobe.





### MARIA PILAR IRANZO

32 urte, ileapaintzailea

Epe motzean, ez dut uste. Ideala litzake 35 ordu lan egitea, baina enpresa batzuetan noizean behin ordu gehiago sartu behar badituzte ez zait gaizki iruditzen.

### MARI CARMEN BLANCO

53 urte, etxekoandrea

Nahiko zaila izango dela iruditzen zait, dena den, oustatuko Iitzaidake lortzea. Senarrak eta alabak lan egiten dute eta ordu pila bat direla uste dut.




JOSE β/1(tu"?1
(Txema)

-Mota guztietako pintura
eta enpapelatuak.
Zoluak, moketak, sintasola,
kortxoa, etab. jartzen dugu

San Bartolome, 28-1 ezk • Tel: 943 74 12 55 • Mobila: 929 44 23 14

AROR PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA
Haur eta helduentzako

Ana Artamendi eta Beatriz Ortueta

AFASIAK, DISFON1AK, DISLALIAK, DISLEX1AK,
HIZMOTELTASUNA, E.L.A.

Toribio Etxeberria 10, 6 ezk. EIBAR — Tel. 943 20 27 15

# nola ALDATU diren gauzak!

2001-11-9



**1940** urte inguruan gaur egun Leku Eder bezala ezagutzen dugun lekua ortuz eta txabolaz beteta zegoen. Plaza Txikia eta ortuak bereizteko harrizko horma bat zegoen. Ortuak Etxaniz, Unzueta, Aizpiri, Irusta eta Barrutia familienak ziren, beste batzuen artean. Sasoi hartan, txerri kortak zeuden bertan. Giltzaz itxita egoten zen leku hau, baina hilean behin, feriara etortzen ziren tratanteei bezperan ganadua sartzen uzten zieten Barrutia familiakoek.



**1950ean** egungo Plaza Txikia eta Leku Ederreko parkea bereizten zituen horma bota zuten, eta beranduago, 1993an, Leku Ederreko parkea egin zen. Gaur egun Elgoibarko herrian bertan dagoen berclegune garrantzitsuenetakoa da. Ume ugari egon ohi da jolasten eta adineko jendearen topagunea ere bada, pasiararako eta eguzki epeletan egoteko leku aproposa baita ere.

*Juanito Gorostiza*



*V. URTEURRENA*

*1996ko otsailaren lin, 21 urte zituela hil zen*

***GAIZKA GALDOS ARAKISTAINen** oroimenez*

***URTEURRENEKO MEZA** izango da Garagartzako elizan (Mendaro) igandean, hilak 11, eguerdiko 12:00etan.*

*Joango zaretenoi eskerrak aldez aurretik.*





*I. URTEURRENA*

*2000ko otsailaren 10ean, 81 urte zituela lul zen*

***FELISA ARRIOLA ZUBIAURREren** oroimenez*

***URTEURRENEKO MEZA** izango da Parrokian larunbatean, hilak 10, arratsaldeko 19:00etan.*

*Joango zaretenoi eskerrak aldez aurretik.*



# ikastola



Matrikulazio epea
Otsailaren 5tik 16ra

Ikastolen Elkartea

PARTAIDE
Ikastolak

pedro miguel urruzuno, koop. • Ermuaran bide, 7 • Posta 53 • 20870 Elgoibar
Tel. 943 74 44 41 • Fax: 943 74 84 36 • eigoibarOikastola.net

ZUPIAUPRIE

Informatiko

# CTI INFORMATIKA

Jazinto Olabe, 6 - Eibar - Tel. 943 120 156 - E-posta: cti@euskainet.net

rll kut.xa K DIRUZ LAGUNDUTAKO **IKASTAROAK**

**16 eta 30 URT ., 4 ... O IKA.STA - O**

AULA

| IKASTAROA | IRAUPENA | OROUTEGIA | EGUNA | EGUTEGIA | PRF/JOA |
|---|---|---|---|---|---|
| ACCESS Datu Basea | 15 ordu | 17:00-20:00 | Ostirala | Martxoak 2-9-16-23-30 | 5.200 pta. |
| WEB ORRIEN EDIZIOA | 15 ordu | 09:30-12:30 | Larunbata | Martxoak 3-10-17-24-31 | 7.200 pta. |

| IKASTAROA | IRAUPENA | OROUTEGIA | EGUNA | EGUTEGIA | PREZIOA |
|---|---|---|---|---|---|
| EXCEL Kalkulu orria | 24 ordu | 11:00-13:00 | Astel./AsteazJOsti. | Martxoak 5-7-9-12 14-16-21-23-26-28-30 eta Apiril ak 2 | 12.700 pla. |
| INTERNET | 12 ordu | 11.00-13:00 | AstearlOsteg. | Martxoak 6-8-13-15-20-22 | 8.500 pta. |

**IKASGAIAK**

- *Windows*
- *Internet*
- *Testu tratamendua*
- *Kalkulo orriak*
- *Datu Baseak*
- *Autoedizioa*
- *Progranzazio lengoaiak*
- *Kontabilitatea*
- *Nominaka*

*informatika zentru teknikoa*

**ORDUTEGIAK**

| GOIZEZ | ARRATSALDEZ |
|---|---|
| 08.30 - 10.00 | 15.00 - 16.30 |
| 10.00 - 11.30 | 16.30 - 18.00 |
| 11.30 - 13.00 | 18.00 - 19.30 |
| | 19.30 - 21.00 |

# ZEZEN-BIDE

## AIJTO-ESKOLA




Gazte kontua ekin

San Frantzisko, 43-1. Tel: 943 74 27 20 - ELGOIBAR    Ego-gain, 2 behea (sarrera S. Andres ibilbidetik). - Tel: 943 20 34 45 - EIBAR

# BARREN



# elkarrizketa

**GUTXI IZANGO DIRA HERRIAN JOSE ZUAZUBIZKAR EZAGUTZEN EZ DUTENAK. ELGOIBARTARRAK BORONDATETSUAK GARELA DIO JOSEK, BAINA ELGOIBARREN INOR BORONDATETSURIK BADA, HORI JOSE ZUAZUBIZKAR BERA DA. ELIZAKO LAGUNTZAILEA, 'CARITAS'EKO KOLABORATZAILEA ETA EDONORI ESKUA LUZATZEKO BETI PREST DAGOENA. BIHOTZ ONEKO GIZON HONEKIN IZAN GARA BERBETAN ETA BERE BIHOTZA IREKI DIGU BIZITZAKO HAINBAT PASARTE KONTATZEKO.**

## Jose Zuazubizkar

"ELGOIBARTARROK OSO BORONDATETSUAK GERA"

*1922AN JAIO ZEN JOSE ZUAZUI3IZKAR ELGOIBARREN ETA BERTAN BIZI IZAN DA 79 URTEOTAN. 14 URTERA ARTEKO IKASKETAK EGIN OSTEAN LANEAN HASI ZEN, GARAI HARTAN GAZTE ASKOK EGIN OHI ZUEN MODUAN, ETA GAUETAN ARTES Y OFICIOS' ESKOLARA JOATEN ZEN. ZUBIAURRE ANAIEN LANTEGIAN ETA AITAREN TAILERREAN ARITUA DA LANEAN. BAINA JOSE BERE BORONDATE ONAK EGIN DU EZAGUN ELGOIBARREN. ELGOIBARK0 `CARITAS'EN LEHENENGOETAKO PARTAIDEA IZATEAZ GAIN, DEBABARRENEKO ARDURADUNA IZANDAKOA DA, ETA EGUN ARDURA HORIEK PISKA BAT ALBORATTITA BADITU ERE, GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDE HONEKIN KOLABORATZEN JARRAITZEN DU. BESTALDE, ELIZTARREK ERE ALTARE INGURUAN MAIZ IKUSIKO DUTE, ELIZAN ERE AURREKO ZEIN ATZEKO LAN ASKO EGITEN BAITITU JOSEK. TXIKITATIK HASI ETA GAUR ARTEKO BERE BIZITZARI ERREPASOA EGIN DIOGU.*

# Jose luazubizkar

# "Elgoibartarrok



Gogoan al duzu zure eskola garaia?

Plaza Txikiko eskoletan ibili nintzan lehenengo eta gero goiko eskolan. 13 urte inguru nakazela eskolatik urten hamabixetan eta Bereziartuakin musikia ikastera juten nintzan. Eta 14 urte betetzerako lanera, oporrak eukitzen nitxuanian ere, ni Ianera juten nintzan, aitxak tailarra zakan-eta. Lan eitxen genduanian ere gabetan eskolara juten ginan, mekanikia, dibujua... erakusten zeben, tailarrerako preparatzeko.

Beti egin al duzu lan aitarekin?

Ez, lehenengo Zubiaurrenian ibili nintzan lanian gerra denboran. Gerria amaitxu zanian jun nintzan aitxan tailarrera eta jubilau artian ibili nintzan.

Gerra aipatu duzu. Zein oroitzapen dituzu garai haietatik?

Aitxa zanak eta anaixak lanik ez zauken eta Donostiara jun bihar izan zian lanera. Ni familixa guztiakin geratu nintzan. Estazivan bizi ginan, eta kainoien balen txistua sentitzen genduanian , jaiki eta Santa Klarako Kortabarrianeko etxera juten ginan. Gerra ostia ere gogorra izan zan, gose denborak-eta pasau genduzen.

Gazte denboran sortutakoa omen da zuk besteei laguntzeko daukazun grina. Nolatan hartu zenuen `Ca'ritas'en ardura?

Ejerzizio batzuk euki genduzen Arraten, eta bueltan `Ckitas'eko juntakuek aspertuta laga ein ziuenez, Manolo Rementeria eta bixok ein ginan kargu. Aspaldixan arduradun lanak lagata daukadaz, baina laguntzen dihardut.

Egunero egoten zarete Ca'ritas'ekoak behartsuei laguntzeko prest, ezta?

Parrokixan lehenengo plantan Iokala dakagu behartsuak errezibitzeko. Egunero 12:00etatik 13:00era bitxartian egoten gera `Cliritas'ekuak, astelehenetik ostiralera bitxartian, Behartsuak etortzen dia eta eurekin berba ein ostian bazkaritxarako bale bat ematen jakue, ze dirua ematia peligrosua izaten

Zer da `Ctirita.s'?

Behartsueri laguntzeko elizako organizazio bat da. Behartsuak etortzen dianian eureri hitza eman eta patxadaz entzuten egoten gera. Gero ahal dogun einian laguntzeko. Bestalde, herriko familixeri ere

# so borondatetsuak gerall

laguntzen diegu. Udaletxeko Ongizate Sailakin kolaboratzen dou kasuak estudixau eta ahal dogun neurrixan diruz laguntzeko.

'Caritas'eko eskualdeko arduraduna ere izan zinen, ezta?

Debabarreneko arduraduna izan nintzan urte morduan. `aritas'ek bi parte ditxu, bata ordinaria esaten jakona eta bestia, parokua. Nik paroko diruak administratzen n tx uan. B ailarako herri danetan batutako diruak hartu eta gero herri bakoitzak hilabetian zakan biharren arabera eskatzen zaban. Laga nabanian azken bost urtietako balantzia ein eta bost urtian danera 100 milioi pezeta repartidu genduzela ikusi naban.

**"BEHARTSUERI LAGUNTZEKO ELIZAKO ORGANIZAZIO BAT DA 'CARITAS`. EURERI HITZA EMAN ETA PATXADAZ ENTZUTEN EGOTEN GERA, GERO AHAL DOGUN EINIAN LAGUNTZEKO"**

El Salvador eta Indian gertatutako ezbeharren edo antzekoen aurrean zein jarrera hart?en du `Caritas'ek?

Bankuetan `Caritas'ek kontuak ditxu dirua batzeko. Normalian aurretik ere bialtzen dou laguntzia, `Caritas' Internazionalan bitxartez biharrian daozen herrialdietara. Dirua biharrian generua bialtzia hobia izaten da eta gehixenetan hola eitxen dou, dirua tentagarrixa da-eta.

Inoiz pentsatu al duzu kanpora laguntzera joatea?

Ez, sekula ere ez. Uste dot unlitira jun gabe hemen ere badauala laguntzia bihar daban jendia, eta nik hemen eitxen dot Ian.

Elgoibartarrok laguntzen al diegu behartsuei?

Nere ustez oso borondatetsuak gera. Gabonetan diru mordua batzen da, elizako koIektetan ere pila bat. Gero badao jendia aparteko sobriak ematen ditxuana ere. Sekula ez da bihar beste izaten, baina nik entzuncla dakat Euskal Herrixan besteko laguntzia ez dala leku askotan ematen.

Hainbeste urtetan `Carita,s'en laguntzen ibili ostean, anekdota asko izango dituzu kontatzeko.

Bat goguan dakat, beste askon artian. Maltzagan bazauan ijitxuen familixa bat, eta ailegau zan momentua zhandik bialtzekua. Orduan ni bertara jun eta ze bihar zeben galdetu niuen. Karro bat nahi zabela esan zien, ein genduzen gestio danak eta kaiTua erosi, baina handik urte batzutara berriz agertu zian karnta saidu eta bueltan. Orduan etxia ere ipini ziuen Eibarren, baina gero familixan gaizki konpontzen zian eta gure ahaleginak alperrikakuak izan zian.

**"SEKULA EZ DA BIHAR BESTE IZATEN, BAINA NIK ENTZUNDA DAKAT EUSKAL HERRIXAN BESTEKO LAGUNTZIA EZ DALA LEKU ASKOTAN EMATEN"**

Elizan ere laguntzaile fina omen zara.

Beti ibili izan naiz elizan laguntzen, baina azken 15 urtietan, gehixao. Monitore, irakurtzen, komuniva ernaten, administrazivan, diapositibak ipintzen, danetik eitxen dot. Gaztetan adoraziva eitxen genduan gabaz eta hola ohitxu nintzan, poliki-poliki elizan laguntzen. Koruan ere 60 urte pasau nitxuan, baina oin lagata nao.

Beraz, beti laguntzeko prest?

Bai, oin ez nao lehen beste sartuta, baina esperientzia beti izaten da grado bat, eta hainbeste urten ostian, ezingo dot ba guztiz laga.





# atzera begira

## pausoz pauso



- 1922ko urriaren 5ean jaio zen Elgoibarren eta egun ere bertan bizi da.

- Plaza Txikiko eskoletan eta Goiko eskolan ikasi ondoren, lanean hasi zen, eta gerora ere `Artes y Oficios' eskolan aritu zen. Lanetik irten eta gauetan ikastera ,joaten zen.

-Musika ikasketak ere egin zituen Bereziartuarekin eta koroan urte mordoan ibilitakoa da. Kantuan ezezik, koruko presidentea, sekretarioa, tesorereoa eta laguntzallea ere izan da. Azken urteotan lagata dauka koroa.

- Gerra garaian Zubiaurre anaien lantegian egin zuen lan eta gero aitaren tailerrean, jubilatu artean.

- Presoei laguntzeko talde bat sortu zen gerra denboran eta Jose hain borondatetsua izanik, bertako kide ere izan zen.

- 1947 urte inguruan sortu zen `Ckitas' Elgoibarren eta Jose Zuazubizkar izan zen, Manolo Rementeriarekin batera, lehendabiziko partaideetako bat.

- Elgoibarko Odol Emaileen elkarteko sortzaileetariko bat izan zen 1965ean. Ohorezko bazkide ere izendatu zuten.

- Elizan bere presentzia ia ezinbestekoa bihurtu da. Izan ere, oso laguntzaile fina da: Jauna ematen, diapositibak prestatzen, administrazioan, eta beste hainbat lanetan kolaboratzen du.

- Egun jubilatuta dago, eta besteei laguntzen ari ez denean, berarentzat tartetxo batzuk hartu eta baserrira joaten da. Bilobak zaintzeko ere izaten du astirik Josek.

# **besteen** ahotan



Jose Zuazubizkarrek Elgoibarko `Caritasieko arduradun kargua laga zuenean Consuelo Garciak hartu zion erreleboa, eta Joseri buruz zerbait kontatzeko eskatu diogunean berba politak baino ez dizkigu esan. "Gizon oso langilia da Jose, guixik daki zenbat lan ein daban gizon honek bestieri laguntziarren". Orain urte batzuk 'Gritas'eko lanak piska bat alboratu arren, oraindik laguntzen jarraitzen du. "Hainbeste urtian jende asko ezautu dau, eta esperientzia haundixa hartu ere bai. Gainera, beti dao laguntzeko prest. Josek, garai baten, biharra zakenak bere eixian ere hartu izan zitxuan". Hitz bakarrean Jose nolakoa den azalizea badago: Gizon "aparta" dela esan digu Consuelok, eta ziur gaude beste askok ere hala usteko duela.

# Kala

l oradenda

s an bartolome 10, eskuina     t e I. 943 744 5/6



Ezkontza eta jatetxeetako dekorazioa

Terraza eta lorategien diseinua (paisaiista)

Bulego eta atarien dekorazioa

Hiletetarako konposizioak

interflora

**Leituz atdatuta,**
**orain San 13artatome katean!**




## - San Balentin Menua

*Otsailaren I4a*

*Txangurro entsalada legatzarekin*
*Txipirol'en saltearua*
*Txahal-rnasaila ardo belrzean*

*Euskal pasioa*
*Kafea*

7.000 p**ta.,** BEZa bikoteko
(edaria aparte)

## ihauteri Menua

*Ihauterietako aste guztlan*

*Langostino etagula entsalada*
*Pintada-petxuga, gaztaina-krernaz betea*

*Bakailaua 'Belaustegi' erara*
*Ahate basati-izterra fruta gorriekin*

*Txanpan birsa*
*Kafea*

*4.500 pta.÷BEZa*
(edaria aparte)

3 1,patu Egunkaria T@In UMEB2 pidetza alduz

111

(2 lagunentzako bazkaria)



## AÑOTA TOLARE SAGARDOTEGIA

© 943 81 20 92
*AZPEITIA*

ill"1"7-

0gnn Egp za ez harpidedun* eta EGUNKARIAk txotx egitera gonbidatuko zaitu.



## Harpidetzaren abantailak

EGUNKARIAk egiten dituen promozioetan abantailak izango dituzu.

Harpidedunaren txokoan milaka sari eskura.

Goizeko 08:00ak aurretik jasoko duzu EGUNKARIA etxean, lantokian...



Orain 3.500 pta, baino gutxiago kostako zaizu hilean.

# Deitu ORAIN !!

# © 943 300 222

*Otsailaren 9tik 19ra

Egunkaria

# internet

informazioa

# Banka ElEktronikoa lasai ErabiltzEko aholkuak

~111111 11

dihr

Ordenagallua babestea ezinhestekoa **da eragiketa** tinantzteroail egitelio. Beraz, nam ez ditugun **"laguntmoak" gure ordenagalluan sar ez daltezen** eguneratutako antibirus bat izatea beharrezkoa da.

**Programa bat nondik** eskuratu dugun ez badakigu, aplikazio berria, ez instalatzea gure onerako izango da, hatez ere Windows erahiliz gero.

Zurea ez den ordenagailua **eragiketa finantzieroak egiteko erabiltzea ez da batere fidagarria.** Beraz, ez egin horrelako opepaziorik ziberKale hateko makinan edo ezagun hatenean.

Serbidorearen identitatea ezagutu behar duzu. Honexioa segurua izan **behar da, hau da,** nabigatzaiiearen behealdean zarrailaren irudia duena. Bertan klik eginez gero bankuaren serbidorea dela egiaztatuko digun informazioa agertuko zaigu.

Erakunde finantrieroak eta bere nahigatzaileak luzera egokidun **klabeak erabill behar dituzte.**

Ordenagailuaren eta serbidorearen arteko informazioa pirata hatek arazo nanutrin guuu USILLIPil haten aurrean 128 biteko klabedun mezuek 40 bitekoek baino babes handiagoa izango dute.

Serbidore seguruak eta nabigatialleen klabeek luzeak behar dute izan. Zure nabigatialleak 128 biteko klabeak onarl2en dituen hala ez jakiteko honako helbidera jo dezakezu: hanking.zionshak.com/acctinfo

Bankura sartzeko zortzi karaktere alfanumerikotik gorako klabea erabiltzea komeni da, NAN **zenhakia, kreditu txartelarena-** erabillizea ez da batere segurua, datu publikoak ere ez erabill, erasoak errazago egin ahal izango lituzkete horretan abilak direnek.

Larrialdietarako bankuko telefonoa eskura izan beti. Izkutuko datuak agerian gera daitezkeela uste baduzu, deitu lehenbailehen telefono horretara. Eguneko 24 orduetan zure zerbiUura dago.


ENPRESA BABESLEA

Softlen

Analisia & Programazioa

Antonio Arrillaga,1 • Tel. 943 748 105



Atal hau SOFTLANelt babesten du.

SOFTLAN Analisla & Programazioa • Antonio Arrillaga,1 • Tel. 943 748 105 - Faxa: 943 74 82 28 - www.sottlan.com .e-posta: desarrolloisottlan.com

MORKAIKO MENOIZALE ELKARTEKO D1REKTIBA BERRIA

# "Gazteixoen artean mendizaletasuna zabaltzea da gure asmoetako bat"

*Urtarrilaren 24an hasi zen lanean Morkaiko Mendizale Elkarteko direktiba berria. Aurreko zuzendarisza taideak, Jon Peli Uriguen presidente zuenak, 4 urte egin ditu zeregin horietan, eta beste batzuri erreleboa emateko garaia iritsi zela erabaki zuten. izan ere, 2 urteko iraupena du, berez, karguak. Unai Egaña eigoibartarra da Morkaikoko presidente berria. Direktiba, berriz, honako gazte koadrila honek osaizen dute: Josu Guenetxea, Beñat Bilbao, Igor Arrioia, Julian Villena, Hector Garrido eta Iñigo Bastidak. Eikartearen egoerari buruz eta sartu berriek dakartzaten asmoak jakin nahian berba egin dugu beraiekin.*



*Ezkerretik eskurnara, zutik: Migo Bastida, Josu Guenetxea, Befiat Bilbao eta Igor Arriola. Eserita: Unai Egiia eta .Julian Villerra. Argazkian Hector Garrido falta da.*

■ Ilusiorik eta gogorik ez zaizue faltako, ezta?

Animo askokin gatoz. Lan hau ez dogu obligazio bat moduan hartzen, ondo pasatzeko asmuakin baizik, bestela ez ginan holako asunto batian sartuko-eta. Egixa esan, ixa asteburu gehixenetan eitxen ditxugu irteerak mendira, eta denbora pixka bat gehixo sartuta beste batzuntzako aktibidadiak antolau genitzakela pentsau gendun, bide batez gure gustuak sartuz.

• Ilusivaz aparte, proiektu edo asmo berezirik ha al dakarzue hesapean?

Bai, ideia mordo batekin gatoz, baina oindiokan goizegi da gauzak aldatzen hasteko. Lehenengo urtian minimuak mantentzia da gure asmua, hau da, oin arte eitxen zana mantentzia, lan hau ere ez baita gutxi. Momentuz lan gehixen ematen diguna federauen fitxak betetzia da, papeleo eta burokrazia haundixa eskatzen baitu. Behin elkartian dinamikia hartzen dogunian, gure aportaziva eitxeko garaixa izango da. Hilian ekintza bat antolatzia gustauko jakun.

a Zein arlo da lan gchien egin heharrekua?

Gure asmo nagusixenetakua mendizaletasuna ume edo gaztetxuen artian gehixao zabaltzia edo indartzia da. Horretarako beraientzako ekintza edo irteera gehixao antolatu ditxugu. Orain Morkaikoko jaiotza eta Finalista Egunaz aparte gauza gitxi daoz eurentzat. Bestalde, jendiak ahotan ibili daban komentarixua izan da Morkaikon irteerak ez diala edozeinek eitxeko modukuak, granpoiekin ez bazoiaz behintzat. Asmua jendiak ideia hori aldatzia da, gu geu ez gera inongo makinak, beste edozein gazte modukoak gera.

• Zein da Morkaiko M.E.ak gaur egun duen egoera?

Bazkide aldetik 1.200 bazkide ditxugu aurten. 2.000 bazkide inguru izatera ere iritsi zan elkartia, baina azken urtietan bazkide kopurua mantendu ein da. Asmua bazkidien partaidetza bultzatzia da, eta jendiak ditxuan sugerentzia edo ideiak jasotzia gustauko litzaiguke. Alde ekonomikotikan egoeria ona da, osasuntsua. Bazkidien kuotetatik ateratzen dogu dirua. Morkaikoko bazkide izateko nahikua da 1.200 pta. urtean ordaintzearekin, haurrek berriz,erdia.

**2.001EN0 ENINVIAN eta MENM IRTEEZI**

| | |
|---|---|
| OTSAILAK 17 | Urdahuru (Hernard) mendira irteera. Ondoren sagardotegira. |
| IVIARTHOAK 17, 18, 19 | Baqueira Beretera eski irteera |
| APIRILAK 12T1K 1811A | Valle de Aranera mendi irteera. |
| MAIATZAK 20 | Elgoiharko Mendi |
| EKAINAK 10 | Finalista Eguna. |
| UZTAILAK 1 | Zalamara mendt irteera. |
| UZIAILAK 25 | Sargoateko errameria. |
| IRAILEAN | Valderelora mendi irteera. |
| URRIAK 12, 13, 14 | Picos de Europara mendi irteera. |
| AZAROAK 1,2,3,4 | Sierra de Gredos (Avila) mendi irteera. |
| AZAROAK 24A | Karakatera Igoera. |
| ABENOUAK 6,7,8,9 | Saint Lary-ra mendi irteera. |
| ABENOUAI( 22 | 1Viorkalkon jaiotza jarri. |
| ABEIVOURK 31 | Aingorrira mendi irteera. |

# Jose Mari Etxabe, `Etxabe Xy, pilotari handia hil da

## 50eko eta 60ko hamarkadetako atzelaririk onenetakoa izan zen

Jose Mari Etxabe 'Etxabe X' pasa den domekan, hilaren 4an, hil zen EIgoibarren 73 urte zituela. Aspalditik gaixorik zegoen eta bere heriotzak doluz jantzi du pilota mundua, prestigio eta entzute handiko pilotaria izan baitzen. Jatorria Zumaian duen pilotari dinastia bateko kidea zen 'Etxabe X', bere garaiko pilotaririk onenetakoa izan zen, 50 eta 60. hamarkadetan. Gallastegi, Soroa, Azkarate, Irureta III eta Fernando Tapia moduko atzelarien aurka neurtu zituen indarrak atzelari boteretsu honek, eta Ogeta, Bergara I, Arriaran III, Barberito eta Garcia Ariño moduko aun̄elari apartak izan zituen lagun hainhat partidutan.

**1961eko finala**

`Etxabe X.'aren kirol lorpenik handiena 1961 urtean jokatu zuen eskuz banakako final handia izan zen. Garaiko bi atzelari onentsuenak iritsi ziren finalera, batetik 'Etxabe X' eta bestetik, Azkarate. Azken honek 22 eta 7 irabazi zuen finala Bergaran. Urte berean eskuz binakako finala ere jokatu zuen Ogetarekin bikotea, baina 22 eta 15 galdu zuten Arriaran anaien aurka. Ogetak lesionatuta amaitu zuen partidua eta `Etxabe X.' aukeratu zuten finaleko pilotari onena.

Ehundaka partidu garrantzitsu jokatu zituen. Zaletu askok oraindik gogoan dituzte `Etxabe X.'ak txapa gainean mozten zituen pilotakadak, batez ere, ezker eskuarekin zabalera egiten zituenak.



*Zumaian jaio bazen ere, 18 urte zituenetik Elgoibarren bizi zen Jose Mari Etxabe atzelari ezaguna. (Erretratuan eskuman)*

# 'C.11 Elgoibar' elkarteak ez du presidenterik datorren urterako

## Julen Konde, egungo presidenteak, denboraldi amaieran lagako du kargua

Pasa den ostegunean, otsailaren lean, ezohiko batzarra egin zuen `C.D Elgoibar' elkarteak Kultur Etxean. Aurrez, Julen Konde presidenteak denboraldi bukaeran presidente kargua lagako duela aditzera emana zuen. Ezohiko batzarra deitzeko arrazoi nagusia, beraz, presidente kargua hartzeko prest dagoen inor aurkitzea zen. Dena den, batzan̄era oso bazkide gutxi agertu ziren, 20 baino gutxiago. Julen Kondek elkartearen zuzendaritza hartzeko inor prest al dagoen galdetu zien han agertutako bazkide apurrei, baina inor prest agertu ez zenez, amaitutzat eman zuen batzarra. Gauzak horrela, datorren martxoaren lerako beste ezohiko batzar bat deitu zuen Kondek. Batzar betTian zuzendaritzaren arazoa konpontzen ez baldin bada, ekainean egin ohi duten ohiko batzarrean hartu beharko da behin betiko erabakia. Honako hau ez da `C.D Elgoibarko zuzendaritza bilatzeko arazoak dauden lehendabiziko aldia, eta inor ez bada agertzen elkartea Elgoibarko Udalaren esku lagatzea da azken aukera, elkartearen estatutuetan azaltzen denari kasu eginez.



**C.D. Elgoibar' taldearen batzarrean ez zen argitu nor izango den Julen konde presidentearen ondorengoa.*

### Zikloturisten irteera otsailaren 1 1 n izango da

Elgoibarko Lagun Taldeak antoIatuta, datorren domekan, hilaren 11n, urteko 5. zikloturisten irteera izango da. Plaza Handitik irtengo dira goizeko 10:00etan, eta honakoa izango da egingo duten ibilbidea: Elgoibar, Soraluze, Bergara, Arrasate, Kanpazar, Elorrio, Abadiflo, Berriz, Areitio, Ermua, Eibar eta Elgoibar. Guztira 73 km. dira. Nahi duen edonork har dezake parte.

# Agurrak



* Zorionak Aitor Larrailaga Jaiori tirtebcoa bete duelako. Elgoibarko sendiak.



• Zorionak Maria Azpeleta lugun minari, aurreko igandean 11 urte bete zituelako. Muxu handi bat lagunen partez.



• Zorionak Antigua, hilaren 10ean urteak beteko dituzulako. Ama eta amona berezi baterdzal, seme-alaba eta biloben partez.

## Farmazia - okindegia

| EGUNEZ | GAUEZ |
|---|---|
| 10 Bidasolo | Bidasolo |
| 11 Bidasolo | Bidasolo |
| 12 Etxeberria | Etxeberria |
| ISanta Ano koleani | |
| 13 Fernandez | Fernandez |
| 14 Yudego | Yudego |
| 15 Zabaleta | Zabaleta |
| 16 Etxeberria | Etxeberria |
| (Errosario kaiecin) | |

FARMAZIAK

ESCALA, Rekalde, 1 Soraluze
Tel: 943 75 16 38
FERNANDEZ,
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42
ZABAIETA, Kalebarren, 9 Soraluze
Tel: 943 75 13 84

**OKINDEGIA**
11 igandea Idarraga



11 Zorionok loni, hilaren 15ean urteak beteko dituelako, Alejandroren partez, asko maite zaitu-eta.



• Ez eizu susto arpei hori ipini? Ze pentsotzen zendun, ez ginala zu despeclizioz akordauko, ola? Ondo ibili inglaterro alde hortan eta pa haundi bana zure kuadrilakuen partez.



• Zorionak Sarai, otsailoren 5ean 16 urte bete zenituelako. Muxu handi bat gurasoen, ahizpa Rocioren, Urtziren eta Andoniren partez.



• Zorionak Ruben, ohailaren 6an 9 urte bete zenituelako. Gustura jan genituen zuk ekarritako goxokiak eta gailetak. Herri Eskolako 3Ako lagunak.



Zorionak Aleiandro, hilaren 2an 2 urte bete zenituelako. Asko maite zaituen familiaren partez.



• Zorionak Jon Aramarri, gaur 3 urte bete dituelako. Familiaren partez eta bereziki, anaia Anderren partez.



• Zorionak Sara Rodriguezi, datorren astelehenean, hilaren 12en, 7 urte beteko dituelako. Familiaren partez eta bereziW, ahizaa Eiderren eta lehengusu Harkaitz, Eneritz, Maider eta Aneren partez.



4 Zorionak Iban Zapatari, otsailaren 10ean urteak beteko dituelako. Muxu bot eixekoen eb bereziki, Ikerren eta Ainhoaren partez.

1111 IR11 it
Zulagailu sakonak
Mobila: 609 926 5811- 201370 ELGOIBAR

Anclistegui s.a.
ZERAMIKAK
ESPOSIZIOA, ALMAZENA ETA BULEGOA:
Olaso industrialdea
0!asope, 5
20870 ELGOLBAR
Tel: 943 74 33 44 74 23 71 **Faxa:** 943 74 37 11

2001-11-9

# RMAMAZICA

## OTSAI LA



**ARGAZKI ERAKUSKETA**

tziar arrasco lasartearra

*"Lantz-eko inauteriak"*



**ERAKUS**

Nerea Aranburu

*Akuarelak, sanginak, karbontziloak...*

11EnA.
Pedro Muguruza 8, behea Tel. 943 74 19 48

## 9 BARIXAKUA

22:15 ZINEA
"Lo que la verdad esconde"

## 10 ZAPATUA

11:00 ATE IREKIEN EGUNA
Herri Eskolan
18:00ak arte

19:30-22:15 ZINEA
"Lo que la verdad esconde"

## 11 DOMEKA

12:30 UDAL MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA
Herriko Antzokian

16:30 ZINEA
"Manuelita"

19:30-22:15 ZINEA
"Lo que la verdad esconde"

## 12 ASTELEHENA

19:30-22:15 ZINEA
"Lo que la verdad esconde"

## 15 EGUENA

21:30 ZINE KLUBA
"South Park"

## 16 BARIXAKUA

22:15 **ZINEA**
"Scary Movie"

## KONTZERTUAK

Udal Musika Bandak kontzertua emango du datorren domekan, hilaren 11n, Herriko Antzokian. Eguerdiko 12:30etatik aurrera eta Jose Antonio Osororen zuzendaritzapean honako pieza hauek joko dituzte: "Amsterdam" (R. Woodfield), "Aida" (Verdi), "Doppelte Dings" (R. Allmend), "Amor" (W. Hautvast), "China March" (R. Allmend) eta "Bands Around The World" (Paul Yoder).

## JAIAK

**Ate Irekien Eguna**

Herri Eskolak Ate Irekien Eguna ospatuko du zapatuan, otsailaren 10ean. Besteak beste, umeentzako tailerrak, airezko gaztelu ikusgarriak eta inguratzen diren guztientzako bazkaria prestatu dute. Gainera, Atxutxiamaika begirale taldekoek haurrik gaztetxoenak zainduko dituzte

ZINE kluba




## "South Park"

**Zuzendaria: Trey Parker.**

South Park Estatu Batuetako hiri lasai bat da. Bertan bizi dira Eric, Kyle, Stan eta Kenny, filmeko protagonista nagusiak. Haur koadrila lotsagabe eta errebelde honen erruz Estatu Batua Kanada elkarren artean gerra bat pizteko zorian izango dira. Pilme hau telebista saio ezagun eta polemiko baten oinarrituta dago. Marrazki bizidunak diren arren ez da haurrei zuzenduriko pelikula bat, batez ere erabiltzen duten hizkeragatik.

2001-II-9

# agenda

## DEIALDIAK

`Nagusilan-RSVP' pertsona nagusi, baina gazteez ere osatutako boluntarioen elkartea da. Beharrean daudenei laguntzeko jaio zen elkarte hau da eta bertako partaide izateko ez da baldintza berezirik bete behar. Bakardadea, antsietatea, lagunik eza... moduko arazoak arintzen saiatzen dira elkartasuna sustatuz. Azken finean zaharren bizitza hobetzea bilatzen dute, pasadizotxoak elkarri kontatuz, prentsa irakurriz edo besterik gabe hitz eginez eta beraien ondoan egonez. `Nagusilan' elkarteak tarte bat duten guztiak gonbidatu nahi ditu, beraiekin harremanetan jartzera.

Horretarako 'Zilarrezko Zenbakia' deituriko telefonora hots egin daiteke: 900 71 37 71. Bestalde, nagusiei laguntza eskaintzeko ikastaroak ere antolatu dituzte. Ikastaro hauek Elgoibarko Jubilatuen Biltokian izango dira otsailaren 19, 20, 21, 22, 26 eta 27an arrtsaldeko 16:00etatik 18:30ak arte,

## KINTO BAZKARIA

1951. urtean jaiotako kintokoek bazkaria izango dute Gorbea jatetxean apirilaren 28an, eguerdiko 14:00etan. Interesatuek honako telefono honetara hots egin dezakezue: 943 74 19 68 (Sabin Alberdi).

## IKASTARDAK

GAZ-T Begirale Taldeak DBH osoari zuzendutako ikastaroa antolatu du. Inauteriak laster direnez, inauteri tailerra jarriko dute martxan GAZ-T-koek otsailaren 10ean, 17an eta 24an. Hiru larunbat hauetan Muguruzan duten lokalean bilduko dira arratsaldeko I 6:00etatik 19:00etara. Ikastaroaren asmo nagusia gauza eta trapu zaharrak birziklatuz inauterietarako jantzi eta karroza dotoreak egiten ikastea da. Interesatu guztiek aipatutako ordu eta egunetan Muguruzako Ikastetxe zaharretan agertzearekin nahikoa dute.

## MENDI IRTEERA

Morkaiko Mendizale Elkarteak mendi irteera antolatu du otsailaren 17rako, larunbata. Aukeratutako mendia Urdaburu da, Hernani-Urnieta inguruan. Ondoren `Eizmendi' sagardotegian bazkaltzeko asmoa dute. Irteera goizeko 9:00etan izango da Plaza Handian. Joan nahi dutenei Morkaikora deitzea besterik ez zaie geratzen eta bertan izena ematea. Informazio gehiagorako astelehen eta ostegun arratsaldetan dei dezakezue elkarteko 943 74 02 97 telefonora.

# zine

1 okia

**"I.o que la verdad eseonde"**
Barixakua: 22:15
Zapatua: *19:30-22:15
Domeka: 19:30-22:15
Astelehena: 22:15
"Manuelita¯
Domeka: 16:30
"South **park"**
Eguena: 21:3Q

**EIBAR, Unzaga**
**elditiOn**
Barixakua: 22:15
Zapatua: 17:00-19:30-22:15
Domeka: 17:00-19:30-22:15
Astelehena: 19:30-22:15
Martitzena: "19:30-'22:15

**"I,hnite Verticall"**
Barixakua: 19:30-22:15
Zapatua: 17:00-19:30-22:15
Domeka: 17:00-19:30-22:15
Astelehena: 19:30-22:15
Martitzena: *19:30-*22:1

**"Granujas de medio pelo"**
Barixakua: 22:15
Zapattia: 22:30
Domeka: 22:15
Astelehena: *19:30-22:15
**"Dinosaurio"**
Zapatua: 17:00- 9:30
Domeka: 17:00-19:30
**"Bailarne el agua"**
Eguena: 20:00

**"You are the one"**
Zapatua: 19:30-22:30
Domeka: 19:30-22:30
Astelehena:19:30-22:3
**"Asterix"**
Domeka: 16:30
*Ikuslearen eguna

BARRENek ez du gerta litezkeen eraldakien 1: ...anik.



## "Lo que la verdad esconde"

**Zuzendaria: Robert Zerneekis.**
**Antzezleak: Harrison Ford, Michelle Pfeiffer, Diana Scarwidl.**
Norman Speneer doktorea eta Claire, honen emaztea, zoriontsu bizi dira hiriko zaratatik urrun, beraien etxe zoragarrian. Bien alaba bakarra unibertsitatera joan berri denez, orain denbora libre gehiago dute elkarrekin gozatzeko. Egoera baketsu hau berehala zapuztuko da, ordea, auzokidearen desagerketa misteriotsuarekin. Gertakari honekin batera, Claire ahotsak entzuten hasiko da etxe barruan eta baita azalpen arrazionalik ez duten irudiak ikusten ere.

2001-11-9



ste honetako erretratu zaharra **Ma Luisa Garridok** laga digu. 1945 urte inguruan ateratakoa da. Bertan agertzen den bikotea oso ezaguna izandakoa da Elgoibarren. Gizona **Francisco** Arostegi da, `Patxi Anttola' bezala ezagunagoa eta emakumea, berriz, **Josefina Angera.** Senar-emažte horiek estazio izkinan zegoen kantinan egiten zuten 1an, Garai hartan jende asko biltzen zen herriko estazioan, tren ugari igarotzen zen Elgoibartik eta oso geltoki ezaguna zen. Hori horrela izanik, jendeak tabernan geldialditxoa egiten zuen eta garai hartakoek diotenez, gustura gainera, gizona ikaragarri berritsua baitzen, jende guztiari barrea ateraraztenzion. Emakumeak, berriz, oso ondo abesten omen zuen.

QW

***ESKERTZA***

*2001ko otsailaren 4an, 73 urte zituela hil zen*
*IOSE MARIA ETXABE ALZIBARren sendiak,*
*bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako dolwninak,*
*hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*





***ESKERTZA***

*2001ko urtarrilaren 26an, 79 urte zituela hil zen*
*EUSEBIA ARRIETA LIZARRALDEren sendiak,*
*bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak,*
*hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*






**Sofa on bat prezio onean erosteko aukera aparta!**

**SANTA ANA, 8 • TEL.FAXA: 943 743 509**

# arbizitzen ikasi



## MATRIKULAZIOA
**1KASTURTEA 2001-2002**

**HAUR, LEHEN eta bERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASTETXEETAN**

**Otsailaren 5etik 15era**

## GURASOENTZAKO B1LERA

**INSTITUTUAN otsailaren 13an arratsaldeko 18:00etatik aurrera**



## Elgoibarko institutua

San Rake 1• Arregitarre 2 • Tel. 943 748 019
E-maila:bulegoa@elgoibanhezitek.net



## Elgoitharko Herri Eskola

Kalamua, 8 • Tei. 943 740 879
info.elgaibar@educanet.n&

## ATE IREKIEN EGUNA

**HERRI ESKOLAN
Otsailaren 12a**

# ELGOIBARKO EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA